



KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA

Ogasun Batzordeak 2018ko abenduaren 4ean egindako diktameneko kopuruen arabera, 2019 ekitaldiko **AURREKONTU OROKORRA**ren proiektuak **35.214.548,18** euroko zenbatekoa du. Proiektu horretan sartu ditugu, UDALAREN aurrekontua, **33.448.185,72** eurokoa eta ITURBIDE EGOITZA Erakunde Autonomoaren aurrekontua, **1.777.362,46** eurokoa.

Lehenengo eta behin esan behar da **Iturbide Egoitza aurrekontua soilik 1.sei hilabeterako dela**, aurreikusita baitago epe horren barruan elkarte autonomoa desagitea eta **KABIA** izeneko **foru elkartean sartzea**.

Udalaren aurrekontua nahiz Erakunde Autonomoen aurrekontuak aurrekontuei buruz indarrean dauden legezko xedapenen arabera egin dira. Aurrekontuko kopuruak kalkulatzeko erabilitako irizpideei buruz, beharrezkoa da ondorengoa adieraztea:

Diru-sarreraren aurreikuspenak kalkulatzeko, aurrekontuaren I, II, III eta V. kapituluetan, 2018 urtean likidatutako eskubideetatik abiatu gara, itxiera aurrerapenaren datuen arabera, **kontuan izanik Ordenantza Fiskaletan 2019rako onartutako tarifa aldaketak**, Udalbatzarrak 2018ko urriaren 2an hartutako akordioaren arabera, praktikan, 2018ko tarifak mantentzea suposatzen duela.

IV, VI, VII eta VIII. kapituluetarako, oinarritzat hartu dugu orain dagoen **informazioa**, bai eta beste **erakunde batzuek hartutako diru-laguntza konpromisoak** hartu dira kontuan (Udal Finantzaketako Foru Fondoaren parte-hartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera). Dena den ere, hala badagokio, ekitaldian izan daitezkeen balizko desbideratze negatiboak, batez ere VI.Kapituluko - Inbertsio Errealak Inorentzea (Hirigintza Kargak), insekuritate maila handien duten sarrerak horiek baitira, kontrolatu beharko ditugu aurrekontuaren exekuzioa berraztertzeke testuinguruan eta, desbideratzearen tamainaren arabera, eta horiek negatiboak baldin badira, horrek erabakiak hartzera behartuko du, aurrekontua orekatzeko, bietako bat gauzatzuz, edo gastuak murriztu edo diru-sarreraren igoera osagarri bat bilatu.

Gastuen atalean, adierazi daiteke nahikoa dela daukagun aurrekontu kopurua zerbitzuak normal funtzionatzetik datozen eta eskatu daitezkeen obligazioak betetzeari erantzuteko. Dena den, nire iritzian, kreditu globala eta aurrekontua betetzeko arauak (eta horiek ematen dituzten malgutasunak) dira udal aurrekontuetako beste tresnak ahalbidetzen dutenak, modu nahiko errazean, ekitaldian sortu daitezkeen gastu desbideratzeei 2019ko aurrekontuak egokitzeko.

Pertsonal edo langileen kapituluko gastuei dagokienez, 2019rako Estatutik, azken urte hauetan egin den moduan, ezarritako mugak eta zehaztasunak finkatu gabe egonik (ez dago garbi Estatuaren 2019 ekitaldirako aurrekontuek berariazko onarpena izango dutenik) Udal aurrekonturako dotazioak kalkulatu ditugu, termino homogeneoetan, **2018ko bukaeran indarrean zeuden lanpostu eta ordainketei buruz igoerarik gabe, nahiz eta fondo izaeraz %2,5eko erreserba bat sortu, ekitaldian zehar onartu daitezkeen ordainsarien errebisioak finantzatzeko**.

Gainerako diru-sarrerekin ezin estali daitezkeen gastuak finantzatzeko, **Udalaren aurrekontuan jasota dator mailegu bat eskatzea, 334.977,72 eurokoa**, eta **ITURBIDE EGOITZA erakunde autonomoaren kasurako**, beharrezkoa da udalaren ekarpena, 2018ko ekitaldian aurreikusten den **defizita estaltzeko, 1.000 eurokoa**. Diru-sarrera horien bidez aurrekontu biak, UDALARENA eta ITURBIDE EGOITZARENA berdintzea lortu dugu.

2019 ekitaldirako jasota dagoen aurrekontuetako zorpetze berriko zenbatekoari dagokionez, 334.977,72 eurokoa, esan behar dugu, aurreikusitako mailegu berria sinatuko balitz ere (seguruenik egingo ez duguna, izan ere, estimatu dugu ez dela behar izango mailegu berririk, 2018ko ekitaldiko itxieran soberakinak sortzea espero baitugu), **legez finkatutako 2019rako helburuak bete egingo direla**, hots, **aurrekontua egonkortzekoa, zor publikoarena eta gastu arauarena**, Aurrekontua Egonkortzeari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012



Lege Organikoan nahiz garapeneko hurrengo legezko araudian ezarritakoak, besteak beste, 2013ko apirilaren 8ko 1/2013 Foru araua, Gipuzkoako Toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretza eskumena garatzen duena, eta 2018ko azaroaren 20ko dataz onartutako Gipuzkoako Diputazioaren Instrukzioak, azaroaren 2018/11/27ko GAOn argitaratuta, Gipuzkoako Udalei aplikagarria dena, eta 2019rako helburu hauek ezartzen dituen:

- Toki Erakundeei aurrekontu **egonkortasuneko helburuak - Zero defizita**
- **Zor publikoa** - 2019/12/31n 2018ko diru-sarrerara arruntei buruz **%72ko muga**
- **Gastuaren araua** – 2018ko gastuari buruz **%2,7 gehienezko hazkundera** ezin da gainditu.

- Hiru helburu horiek aurrekontuaren onespenean, aldaketan eta itxieran, Kontuhartzaitzako txostenaren bidez, egiaztatu behar badira ere, 2019rako araudiak xedatzen du **plan ekonomiko-finantzieroa**ren **beharra** (eta hartu beharreko neurriak lortzeko urtebeteko epean berriro helburuak betetzeko egoerara bueltatzea) edo obligazioa soilik **2019ko aurrekontua likidatzean neurtu eta gauzatu behar dela**.

Egiaztatu beharreko hiru helburu hauek aurrekontuaren onarpenaren fasean bete direla egiaztatzeko txosten honekin batera doan agiri osagarrian ikus daiteke.

Konpromiso Kredituen atalari dagokionez, gaur egun, konpromiso kredituak ditugu, 2019ko ekitaldiaren eta hurrengo ekitaldien kontura onartutakoak, 4.040.442,30€an, handienak, "Juan arzamendi Musika eskola" proiektuaren kontratazio espedientetik ondorioztatutako kreditu erreserbetatik eratorriak (esleitutako kopuruen arabera), 1.056.228,80€, eta Kulturola proiektuaren kontratazio espedientetik ondorioztatzen direnak, 2.695.832,57€koak, eta "Polo de Innovación Garai S.Coop." entitatearen kapital ekarpenari buruz Udalbatzarrak 2010eko urriaren 7an eta 2013ko abenduaren 17an hartutako akordioetatik datozenak, hura ordainduko (112.578,53 euro) da baldin eta Eraikuntzen gaineko Zergarengatik edo Hiri OHZrengatik diru-sarrerak sortzen badira, berrikuntza gune horretan. Beste konpromisoak, kopuru txikiagoak suposatzen dutenak, Zalduspeko Kalte-ordaina ordaintzetik (90.000 euro, ordainketa 2019ra atzeratua) eta jabego pribatuko baina erabilera publikoko zortasun duen esparru baten urbanizaziorako laguntza emaketik datozenak dira. Halaber, aurrekontuak betetzeko arauak jasota dute 2019an konpromiso berriak hartzeko aukera, inbertsio proiektu jakin batzuetarako, geroko ekitaldien kontura, hori guztia baldintza honekin, Gipuzkoako toki erakundeen Aurrekontuen gaineko 21/2003 Foru Arauaren 22. artikulua eskatzen dituen baldintzak betetzea. Araudi horrek xedatzen du, beste baldintza batzuen artean, etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromiso-kredituen zenbateko metatua ezin dela izan erakundearen likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arrunten baliabideen %25 baina handiagoak. Laburbilduz, gaur arte onartutako konpromiso kredituen zenbatekoa ikusirik eta kontuan izanik horietatik zati esanguratsu bat (%55a) 2019ko aurrekontuetan eragina daukatela eta, berez, aurrekontuaren onespenearekin bere finantzazioa bermatuta gelditzen dela, eta 2019an konpromiso berrietarako jasotako kasuen ezaugarriak kontuan izanik, **esan genezake ez dugula espero arazoak egotea konpromiso kredituen finantzaketari aurre egiteko Udalak duen gaitasun ekonomikoari buruz**.

Azkenik, adierazi behar dugu, Aurrekontua onartzeko, **Udalbatzarraren kideen gehiengo soilaren aldeko botoa behar dela**. Aurrekontua onartzeko hasierako akordioa hartu eta gero, jende aurrean erakutsi behar da akordioa, eta gure Lurraldeko Aldizkari Ofizialean eta Udalbatzaren Iragarki Taula Nagusian argitaratu 15 eguneko epean; eta epealdi horretan aztertu ahal izango dute interesdunek eta aurrekontuen aurka egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu.

Jende aurrean erakusteko aldi erreklamaziorik jaso ezker, hil bateko epean erabaki beharko ditu Udalak.

Horixe da esateko daukadana, Arrasaten 2018ko abenduaren 4ean.

KONTU-HARTZAILEA

2019ko AURREKONTUEN EGONKORTASUNARI BURUZKO HELBURUA - 2018/11/20ko jarraibideak - ZERO DEFIZITA

KONTSOLIDATUTAKO GASTUEN I - VII KAPITULUEN BATURA	34,716,397.21 (*)
KONTSOLIDATUTAKO SARREREN I - VII KAPITULUEN BATURA	34,789,570.46 (*)
	<hr/>
SARRERA ETA GASTUEN ARTEKO ALDEA (0, defizita ez edukitzeko)	73,173.25

(*) kalkuluak erraztearren, ez da KSE eraginetarako doikuntza esanguratzurik egiten

2019rako ZOR MUGA HELBURUAREN BETETZE MAILA - 2018/11/20 JARRAIBIDEA - 2019ko ABEND. ZORRA ≤ 2019ko SARRERA ARRUNTEN % 72 (*)

2019KO URTE BUKAERARAKO BALIOETSITAKO ZORRA

2019/1/1AN SINATUTAKO MAILEGUETATIK 2018/12/31AN AMORTIZATZEKO GELDITZEN DEN KOPURUA 34,239.59

2019KO MAILEGU BERRIA (nahiz eta aurrekontuetan aurreikusi, ulertzen da ez dela beharrezkoa izando) 0.00

2019/12/31an AMORTIZATZEKE GUZTIRA

 34,239.59

2019KO KONTOLIDATUKO SARRERA ARRUNTAK (2019ko aurrekontuaren datuen arabera) **33,836,970.46**

% MAILEGUEN ZORRA / KONTOLIDATUTAKO SARRERA ARRUNTAK **0.10**

(*) 2019an mailegu berria eskatzen ez den bitartean eta betetzen badira aurrekontuetako aurreikuspenak, E.J. aurrerakinen inportea barne

2019RAKO GASTU ERREGELAREN ARAUARI BURUZKO BETETZE MAILA

A - 2018 URTEA (*)

1 .Kontsolidatutako enplegu finantzarioak (2018ko aurrek. Gastuen I -VII kapituluak)	39,267,700.00
2. III.kapituluaren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)	-8,100.00
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 1.taula)	-3,735,710.01
- Udala-gastu arrunta	1,185,583.08
- Udala - Kapital gastua	573,126.93
- Iturbide	1,977,000.00
4. Exekutatu gabeko gastuen doiketa(**)	
5. 2018rako GASTU KONPUTAGARRIA	35,523,889.99

B - 2019 URTEA

1 .Kontsolidatutako enplegu finantzarioak (Gastuen I -VII kapituluak)	34,716,397.21
2. III.kapituluaren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)	500.00
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 3.taula)	-2,278,937.00
2019RAKO GASTU KONPUTAGARRIA	32,437,960.21

C -ONARTUTAKO GEHIKUNTZA %2,7 (2018/11/20ko Gipuzkoako araudia) 959,145.03

D- ARAUDI ALDAKETAN ONARRITUTAKO SARREREN GEHIKUNTZAK (*) 0.00**

E - 2019RAKO GASTU ERREGELA BETETZEN DELA EGIAZTATZEA

E.1.- 2018 DOITUTAKO GASTU KONPUTAGARRIA	35,523,889.99
E.2.- (+) %2,7 BAIMENDUTAKO IGOERA	959,145.03
E.3.- (+) ARAUDI ALDAKETETAN ONARRITUTAKO SARRERA GEHIAGOEN BATURA (***)	0.00
E.4.- 2019RAKO GASTUAREN MUGA ARAUDIA BETETZEKO (1+2+3)	36,483,035.02
E.5.-2019RAKO AURREK.ARABERAKO GASTU KONPUTAGARRIA	32,437,960.21
E.6.-2019AN GASTU ERREGELA BETETZEKO ALDEA (E.5 - E.4)	4,045,074.81

(*) 2018ko exekutatutakoaren estimazioa arabera- 2017ko txertatutako kredituen eragina

(**) exekutatu gabeko doiketa ez da egiten kalkuluak erraztearren

(***) fiskalizazioa igoera ez egitea erabakitzen da

1.TAULA - 2018AN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO GASTUA

1- UDALA - GASTU KORRONTEAK		1,185,583.08
- Diputazioa - partehartzea	18,000.00	
- E.J. - Kultur Ekintzak	4,617.00	
- Diputazioa - Kultur Ekintzak	20,731.00	
- E.J.- Kulturaterako liburuak	7,494.00	
- E.J. - Liburutegien dinamizaziorako	2,725.00	
- E.J. - Ongizateko pertsonalerako laguntzak	0.00	
- Diputaz. - Harrera Zerbitzurako laguntzak	6,947.37	
- E.J. -Gizarte mapako laguntza	88,976.00	
- E.J. - Harrera Zerbitzurako laguntzak	7,500.00	
- E.J. - Drogomenpekotasunerako laguntzak	35,000.00	
- Diputazioa - etxez etxeke zerb.	99,000.00	
- E.J. - GLL	253,000.00	
- INE - Zentsuaren eguneraketa	306.70	
- HAEE - pertsonal formakuntzarako laguntzak	10,192.12	
- Diputazioa - Mendi garbiketa	0.00	
- Mankomunitatea - Akeiko mantenua	17,611.54	
- Mankomunitatea - UIEko kanpaina	7,241.57	
- E.J. - Bake epaitegia	4,625.00	
- E.J. - EBPNrako laguntza	32,500.00	
- HABE - Euskaltegia	390,000.00	
- Diputazioa - Euskera	19,162.00	
- Diputación - Gazteria	11,145.38	
- Diputazioa - Emakume arloko jardueretarako	13,778.00	
- Lanbide -Enplegua sustatzeko laguntzak	125,000.00	
- Diputazioa - igeriketa kanpaina	10,030.40	
2 - UDALA - KAPITAL GASTUAK		
- VII.Kap.		573,126.93
3- ITURBIDE		
- Ustiapenerako laguntzak - hitzartutako tarifak eta ezohiko ekarpena		1,977,000.00
4- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO 2018ko GASTUAK GUZTIRA		<hr/> 3,735,710.01

1.TAULA - 2019AN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN FINANTZATUTAKO GASTUA

1- UDALA - GASTU KORRONTEAK	1,190,800.00
- Diputazioa - partehartzea	5,000.00
- E.J. - Kultur Ekintzak	5,000.00
- Diputazioa - Kultur Ekintzak	29,000.00
- E.J.- Kulturaterako liburuak	11,000.00
- E.J. - Liburutegien dinamizaziorako	3,000.00
- E.J. - Gizarte mapako laguntza	90,000.00
- E.J. - Harrera Zerbitzurako laguntzak	7,500.00
- Diputazioa - Harrera Zerbitzurako laguntzak	7,000.00
- E.J. - Drogomenpeketasunerako laguntzak	38,000.00
- Diputazioa - etxez etxeko zerb.	100,000.00
- E.J. - GLL	240,000.00
- INE - Zentsuaren eguneraketa	300.00
- HAAE - pertsonal formakuntzarako laguntzak	12,000.00
- Diputazioa - Mendi garbiketa	500.00
- Mankomunitatea - Akeiko mantenua	17,000.00
- Mankomunitatea - UIEko kanpaina	8,000.00
- E.J. - Bake epaitegia	5,000.00
- E.J. - EBPNrako laguntza	32,500.00
- HAAE - Euskaltegia	395,000.00
- Diputazioa - Euskera	25,000.00
- Diputación - Gazteria	13,000.00
- Diputazioa - Emakume arloko jardueretarako	12,000.00
- Lanbide -Enplegua sustatzeko laguntzak	125,000.00
- Diputazioa - igeriketa kanpaina	10,000.00
2 - UDALA - KAPITAL GASTUAK	
- VII.Kap.	76,500.00
3- ITURBIDE	
- Ustiapenerako laguntzak - hitzartutako tarifak eta ezohiko ek	1,011,637.00
4- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN FINANTZATUTAKO 2019ko GASTUAK GUZTIRA	2,278,937.00